



2021PRES0002 Esptea

KONTU-HARTZE OROKORRA

Gaia: 2022ko EKITALDIARI DAGOKION AURREKONTUAREN ONESPENEAN AURREKONTUAREN EGONKORTASUN, GASTU ARAU ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETE DIREN EBALUATZEA

Laura Busca Fernández andreak, Hondarribiko Udaleko Kontu-hartzaileak, kontuan izanda azaroaren 2ko 1463/2007 Errege Dekretuak (Aurrekontu Egonkortasunaren Legearen araudia Toki Erakundeei aplikatzerakoan onartzeari buruzkoak) duen 16. artikuluan, apirilaren 27ko 2/2012 Legean (Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoan) eta otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauan (Gipuzkoako Toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorrean finantza tutoretzaren eskumena garatzeari buruzkoan) ezarritakoa, jarraian doan **NAHITAEZKOA DEN ETA PLANIFIKAGARRIA EZ DEN LEGEZKOTASUNAREN FINANTZA KONTROL IRAUNKORRAREN TXOSTENA** egiten du:

1. APLIKAGARRIA DEN LEGERIA:

- Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki erakundeen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorrean finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- 13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa
- 1463/2007 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, toki erakundeetan aplikagarria den Aurrekontu Egonkortasunari buruzko 18/2001 Legea garatzeko araudia onartzen duena.
- HAP/2015/2012 Ministerio Agindua, urriaren 1ekoa, AEFILO (MA)n aurreikusitako informazioa emateko betebeharrak garatzeari buruzkoa, azaroaren 7ko HAP2082/2014 Aginduz aldatua.
- Europar Batasunaren 2223/96 zenbakiko Araudia, Nazioko eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemari buruzkoa.
- 6/2021 Foru Dekretu Araua, urriaren 19koa, 2022an Gipuzkoako toki erakundeek aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorrean 2022an aplikatu beharreko arau fiskalak eteteari buruzkoa.

2. OINARRI JURIDIKOAK:

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa –Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa (aurrerantzean AEFELO)- onartzearekin batera, arau esparru bat ireki da Toki Erakundeentzat Aurrekontu Egonkortasuna betetzeari dagokionez, finkatu egiten duena aurreko araudia defizit publikoari eta aipatutako helburua betetzeari dagokionez.



Lege horretan eta 1/2013 Foru Arauan ezarritakoaren arabera egonkortasun eta iraunkortasun printzipioak betetzeko hiru arau fiskal bete behar dira: egiturazko oreka edo suberabita, zorraren ratio muga eta gastu araua; jarraian aztertzen ditugu horiek.

I. ERAKUNDEEN ZERRENDA

Magnitude horien kalkulua eta ebaluazioa egiteko, 1/2013 Foru Arauaren 1.2. artikuluan, Udaleko erakunde multzoa osatzen duten erakundeak bi sektoretan bereizi behar direla zehazten da: a) “*Administrazio Publikoa*” sektorea eta b) “*Sozietate ez-finantzarioak*” sektorea. Ogasun Ministerioak (IGAE) sailkatzen ditu sektore bateko zein besteko erakundeak.

Hondarribiko Udalaren kasuan, erakundeak sektore honetan sailkatzen dira:

“**ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK**” SEKTOREA. Honako hauek dira 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aditzera ematen diren sektore honetako erakundeak:

- Tokiko erakundea bera: Hondarribiko Udala
- Hondarribia Lantzen, SA: 2018ko maiatzaren 1ean IGAE erakundeak berak Administrazio Publikoen sektorean kokatu zuen Sozietate Anonimoa.
- Arma Plaza Fundazioa: 2019ko maiatzaren 1ean IGAE erakundeak berak Administrazio Publikoen Sektorean kokatu zuen Fundazioa.

II. AURREKONTU EGONKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA

A) Aurrekontu egonkortasuna betetzea

1/2013 FAren 2.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren esparruan egin, onartu eta gauzatuko dira aurrekontuak, Europako araudiarekin bat etorritik.

Administrazio publikoen sektorean txertatzen diren Tokiko Erakundeen kasuan, Aurrekontu Egonkortasuna honela ulertzen da: egitura superabita edo oreka egoera, eta horrek esan nahi du haien baliabide ez finantzario arruntek eta kapital baliabideek aski izan behar dutela gastu ez finantzario arruntei eta kapital gastuei aurre egiteko.

Hala ere, 6/2021 Foru Dekretu Arauak, urriaren 19koa, 2022an Gipuzkoako toki erakundeek aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorrean 2022an aplikatu beharreko arau fiskalak eteteari buruzkoak, 1. artikuluan 2022 ekitaldirako arau fiskalak etetea aurreikusten du eta honakoa ezartzen du: “*Ezohiko izaeraz eta 2022rako bakarrik, etenda uzten dira Gipuzkoako toki erakundeen arau fiskalak. Horrek dakar aurrekontu egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak eraginik gabe uztea, eta gastu araua ez aplikatzea urte horretan*”.

Aurrekontu egonkortasunari dagokionez, 6/2021 FDAren 2. artikulua hau dio: “*Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei lagako die berari esleitutako defizit helburuaren % 40*”. (...) (...) Udalen banakako defiziteko helburua zehaztuko da aipatutako defizit globala Udalak Finantzatzeko Foru Funttsaren kuoten proportzio berean banatuz”. Hondarribiko Udalari 2022 ekitaldirako dagokion banakako defizita 475.324 eurokoa da.



B) Txostena izateko beharra

Tokiko Kontu Hartzailtzak aurkeztu behar du egonkortasun helburua betetzeari buruzko txostena Udalbatzan, 1463/2007 Errege Dekretuaren 16. artikuluan adierazten denaren arabera. Txosten hori independentea izango da, eta 21/2003 Foru Arauan –abenduaen 19koan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoan- aurreikusitako gainerakoei erantsiko zaie, Aurrekontu orokorra onartzean, aldatzean eta likidatzean. Aipatutako txosten horretan zehaztuko dira Estatuko Kontabilitateko 1 - 7 kapituluaren artean biltzen diren aurrekontuko gastu eta sarreraren egoerari buruzko datuetan oinarrituta egindako kalkuluak eta doikuntzak, Nazioetako eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemaren arabera.

2022 ekitaldirako, aurrekontu likidazioan ebaluazioaren emaitza 6/2021 FDAn araututako defizitaren helburua ez betetzea bada, *“toki erakundeek plan ekonomiko-finantzario bat egin eta onartu behar izaten jarraituko dute, plan hori kudeaketa eta planifikazio tresna izan dadin epe luzera, baina haren betetze-mailak neurri gehigarriak hartzeko betebeharra eragin gabe”* (6/2021 FDAREN 1. art.)

C) Kalkulatzeko metodoa

Aurrekontu Orokorra osatzen duten erakundeek aurrekontu eta kontabilitate publikoa eraman behar dutenez, aurrekontu egonkortasuna ondorioztatzen da Diru-sarreraren Aurrekontuko 1-7 kapituluaren eta gastuen Aurrekontuko 1-7 kapituluaren aurreikusitako zenbatekoen arteko aldetik.

Era berean, aurrekontu egonkortasuna kalkulatu behar da lehenik “Administrazio Publikoak” sektorea osatzen duten Erakunde bakoitzerako banaka kalkulatuta, eta gero datuak erantsiko dira modu kontsolidatuan kalkulatzeko. Azken emaitza aurrekontu egonkortasuna betetzen den ala ez zehazteko garrantzitsua izango da.

Horren arabera, Aurrekontu Egonkortasunaren kalkuluak hauek dira:



Hondarribiko
Udala

GASTUAK GASTOS			
KAPITULO	Udala	Hond.	Arma Plaza
CAPITULO	Ayto.	Lantzen	Fundazioa
1	PERSONAL GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	7.959.020,94	
2	BIENES CORRIENTES Y SERVICIOS ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	9.445.587,81	92.100 375.300
3	FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS	140.500,00	5.000
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES Arma Plaza Fundazioari Transferentzia.	4.005.433,86	
5	KREDITO GLOBALA CREDITO GLOBAL	154.267	
6	INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	2.635.115,00	194.300
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	3.600,00	
Guztira Total		24.343.525	291.400 375.300
SARRERAK INGRESOS			
KAPITULO	Udala	Hond.	Arma Plaza
CAPITULO	Ayto.	Lantzen	Fundazioa
1	ZUZENEKO ZERGAK IMPUESTOS DIRECTOS	7.632.180	
2	ZEHARKAKO ZERGAK IMPUESTOS INDIRECTOS	550.000	
3	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK TASAS Y OTROS INGRESOS	2.144.278	35.900
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES Arma Plaza Fundazioari Transferentzia.	13.514.243	339.400
5	ONDARE SARRERAK INGRESOS PATRIMONIALES	20.500	291.400
6	INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	0	
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	7.000	
GUZTIRA TOTAL		23.868.201	291.400 375.300
	Ayto	Hondarribia Lantzen	Fundación Arma Plaza
	Exceso o déficit de financiación no financiero ajustado	-475.324 €	0,00 € 0,00 €

Hondarribiko Udalak ez du 0 defizit helburua betetzen, 2022 ekitaldirako aurrekontuan 475.324 euroko defizita duenez Europako Kontabilitate Sistemari jarraiki. Hondarribia Lantzen SA Sozietateak eta Arma Plaza Fundazioak betetzen dute aurrekontu egonkortasuna. Eragin horietarako, kontuan izan behar da 6/2021 FDan ezarritakoa: “Ezohiko izaeraz, eta 2022rako bakarrik, etenda uzten dira Gipuzkoako toki erakundeen arau fiskalak. Horrek dakar aurrekontu egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak eraginik gabe uztea, eta gastu araua ez aplikatzea urte horretan”.

Aurrekontu egonkortasunari dagokionez, 6/2021 FDAren 2. artikulua hau dio: “Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei lagako die berari esleitutako defizit helburuaren % 40”. (...)” (...) Udalen banakako defiziteko helburua zehaztuko da aipatutako defizit globala Udalak Finantzatzeko Foru Funtzaren kuoten proportzio berean banatuz”. Hondarribiko Udalaren Aurrekontuak 2022 ekitaldirako duen defizita 475.324 eurokoa da.



III. GASTU ARAUA

1/2013 Foru Arauaren 4. Artikuluan ezarritakoaren arabera *“Gipuzkoako toki entitate bakoitzerako gastu konputagarriaren bariazioa Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan adostutakora doituko da urte bakoitzerako”*.

6/2021 FDAren lehenengo artikuluan hau dago ezarrita: *“Ezohiko izaeraz eta 2022rako bakarrik, etenda uzten dira Gipuzkoako toki erakundeen arau fiskalak. Horrek dakar aurrekontu egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak eraginik gabe uztea, eta **gastu araua ez aplikatzea urte horretan”**.*

IV. ZORRAREN MUGA BETETZEA

Zor publikoaren mugari dagokionez, 6/2021 FDAren 1. artikulua ezarria du eraginik gabe utziko dela 2022 ekitaldirako zor publikoaren helburua. 6/2021 FDAren 2.3 artikuluan ezarritakoaren arabera *“Gipuzkoako toki erakundeen epe luzerako zorpetzea bat etorriko da ekitaldi bakoitzerako onartutako defizit helburuarekin”*. :

Hondarribiko Udalaren 2022 ekitaldirako aurrekontuan bere hasierako aurreikuspenetan aurreikusita dago 475.324 euroko mailegu bat epe luzera. Zenbateko hori bat dator 2022 ekitaldirako Hondarribiko Udalari esleitutako defizit indibidualarekin.

ONDORIOA:

Hondarribiko Udalaren Aurrekontuaren 2022 ekitaldirako proiektuak 475,324 euroko defizita du, epe luzearako 475.324 euroko zorpetzea, eta gastua % 1,15 txikitu da 2021 ekitaldiko hasierako aurrekontuarekin alderatuta..

Elektronikoki sinatutako dokumentua